

Baliabide prebentiboen presentzia lan zentruetan

LPRL legeko 32 bis artikulua, prebentzio neurrien eraginkortasuna eta sistemaren efikazia bermatzeko helburua dauka, eta horretarako, lan zentruen barnean prebentzio neurrien presentzia egoteko beharrezkotasunaren aurrean prebentzio neurrien plana diseinatu egiten dau. Holan, momentu jakin batzuetan baliabideen presentzia fisikoa (giza baliabideak eta materialak) bermatzen da, lanaren edo jardueren arriskuak holan exijitu egiten dauanean.

RSP legeko 22 bis artikulua, lan zentruetan behar dirazan prebentzio jardueren betetzea behatzea dauka helburu.

1. Baliabide prebentiboen presentziaren ezarpena: (LPRL legeko 32 bis artikulua eta RSp legeko 22 bis artikulua)

a) Arriskuak larriagotu edo aldaraz daitekezanean prozesuaren edo jardueraren garapenean, garatzen dirazan lanen konkurrentziagaitik eta lanen metodoen aplikazio zuzenaren kontrola dagoanean. Hau da, jaduera batzuk burutzen dirazanean, batzuetan baliabide prebentiboen presentzia exijitzen da.

b) Arriskutsuak edo arrisku berezia daben ekintzak burutuko dirazanean. RSP legeko 22 bis artikulua, arriskutsuak diran 5 jaduera jasaten dauz, hurrengokoak izanik:

- 1- Maila altutik jausteko arrisku larria dabezan lanak.
- 2- Hondoratze edo azpian gelditzeko arriskua dabezan lanak.
- 3- Aitortu gabeko makinekaz burututako ekintzak, CE-k baimendurik, merkaturatze edo komertzializazio data exijitutakoaren aurrekoa izaten danean.
- 4- Espazio mugatuko edo espazio itxietako lanetan.
- 5-Urperatzeagaitik itotzeko arriskua dabezan lanak, salbu urpeko lan ekipoekaz egindako lanak.

c) Gizarte Segurantzaren eta Laneko Ikuskaritzaren presentziak behartzen dauanean, egoeraren baldintzak eta lanaren baldintzak holan eskatzen daualako. Kasu honetan, enpresariak laneko arriskuen ebaluazioa berikusi beharko dau.

2. Presentzia asignatu ahal jaken sujetuak:

Legegilearen xedea, aditu fisikoen edo materian adituak diranak, bai noizbehinka, bai momentuan jarduera zehatz batzuk egiteko edo baldintza espezifikokoak dabean jarduera zehatzak garatzeko, edota enpresa batzuetan baliabide prebentiboen presentzia iraunkorra egotea exijitza da. Baliabide prebentiboen presentzia, horren presentzia behartzen dauazan baldintzak edo lana irauten dauan denbora iraun beharko dau lan zentruan.

Enpresariak, obligazio hauek nola beteko dauazan erabakitzeke ahalmena dauka, eta jarduera prebentiboaren plangintzan agertu beharko da. Horrez gain, enpresariak, langileei esan beharko deutse nortzuk izango diran baliabide prebentiboen arduradunak, haien identifikazioa jakiteke beharrezkoak diran datuak emonez.

Baliabide prebentiboen ezarpenaren teoriari begira, LPRL legeko 32 bis artikulua eta RSP legeko 22 bis artikulua a eta b enuntziatuak azaltzen dauazan egoerak gertatzen dirazanean, baliabide prebentiboen presentziaren aukeraketa lan zentruetan enpresaren edo jarduera hauek burutu egiten dabean enpresaren obligazioa izango da.

Baliabide prebentiboen jarduerak hurrengokoak egin ahalko dabez:

-Enpresak izendatutako langile batek edo bat baino gehiagok (enpresaren zerbitzu prebentiboaren kide ez da izan behar).

-Enpresaren zerbitzu propioaren kide batek edo bat baino gehiagok.

-Enpresak, kanpoko prebentzio zerbitzua izanda, horren kide batek edo kide bat baino gehiagok.

Baina, enpresak langile bat edo bat baino gehiago izendatzen dauazanean baliabide prebentiboen jarduerak lantzeko, langile horrek beharrezkoa dan ezagutza, kualifikazio eta esperientzia euki beharko dau, baita formazio prebentiboa ere.

3. Kokapena, denbora, baliabideak/bitartekariak eta baliabideen jokaera:

Denboraren eta bitartekoen erreglamendu gabeziak, langile hauei, izendatutako langileen edo prebentzio zerbitzuen langileen ikasitako bermeak hedatzea zaila egiten da. RSP legeko 22.3.artikuluak, baliabide prebentiboen presentzia eisleitzen jakenen pertsoneri kokapen jarraibideak emoteaz arduratzen da, bere betebeharren funtzioak egitea lagatzen dauanak eta arrisku faktorea suposatzen ez dauan kokapen bat emotea.

Baliabide prebentiboen presentzia euki behar dabean pertsonak, jarduera prebentiboen betetze egokia egiteke beharrezkoak dirazan argibideak jarraituko dabez

eta aurrez behatutako hutsuneak edo porrotak konpondu gabe baldin badagoz,
enpresariari abisatu beharko deutse.